

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEN ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

3. ordenantza

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko V. kapituluko 167. artikulutik 171.era bitartekoetan, bi horiek ere barne, xedatutakoaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga honen egitatea udal-mugaratean zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea da, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza- edo obra-lizentzia bat eskuratzea –kontuan hartu gabe lizentzia hori erdietsia izan denetz,– edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea, betiere lizentzia ematea edo jardueraren kontrola Iruñeko Udalari badagokio.

Batzuk aipatzearren, zergari atxikitako zerga-egitatetzat honako hauek har daitezke:

- 1) Oin berriko mota guztietako eraikin eta instalazioak eraikitzeo obrak.
- 2) Altxatuta dauden mota guztietako eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
- 3) Altxatuta dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritzeko obrak.
- 4) Eraikinen barreneko banaketa aldatzen duten obrak, erabilera edozein izanda ere.
- 5) Behin-behineko egin beharreko obrak.
- 6) Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
- 7) Lur-mugimenduak, hala nola zelaitze-lanak, lur-erazketak eta betelanak, salbu lan horiek zehaztuta eta programatuta badaude jadanik onetsita edo baimenduta dagoen urbanizazio- edo eraikuntza-proiektu baten barrenean.
- 8) Finkak ixtea.
- 9) Eraikinak eraisteko obrak, salbu hur-hurreko aurri-egoeran deklaraturakoak.
- 10) Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.
- 11) Bide publikotik ikusteko moduan propaganda-kartelak jartzea, betiere lokal itxietan ez badaude.
- 12) Nolabaiteko ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioak beharrezkoak dituzten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, baldin eta beharrezkoa badute obra- edo hirigintza-lizentzia eskuratzea edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea.

Salbuespenak

3. artikulua -1) Zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea zerga ordaintzetik salbuetsirik egonen da, baldin eta haren jabeak Estatu, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomia-erkidegoak edo toki-entitateak badira, eta, zergapekoa izanik ere, zuzeneko xede hala errepide, burdinbide, aireportu edo obra hidraulikoak nola hiri edo herrien zein horien hondakin-uren saneamendua baditu, nahiz hura erakunde autonomoren batek kudeatzen duen eta obra eraikuntza berrikoa zein kontserbaziokoa izanik ere.

Halaber, zerga hau ordaintzetik salbuetsirik egonen da zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egitea Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatuaren edo Nafarroako toki-entitateen etxebizitzetan, baldin eta irabazi-asmorik gabeko entitateei lagapenean utzi eta arazo ekonomikoak dituzten pertsonen laguntza ematea xede badute.

2) Salbuetsirik egonen dira, baita ere, honako jabe hauenak diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak eta haren helburuak betetzeko horrek sortutako entitate juridikoak, betiere eraikuntzak, instalazioak edo obrak erabilera edo zerbitzu publiko bati loturik badaude.

b) Iruñeko Udala partaide duten mankomunitateak eta udal-elkarteak, bai eta horiek beren helburuak betetzeko sorturiko entitate juridikoak ere.

3) Zerga hau dela medio Telefónica de España, SAU enpresari egokitu lekiokkeen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkutzen da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu-araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

Subjektu pasiboak

4. artikulua.- 1) Zerga honen subjektu pasiboak honako hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, jaraunspen jasogabeak, ondasun-erkidegoak eta, nortasun juridikorik izan gabe, batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten gainerako entitateak, baldin eta obraren jabeak badira.

2) Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat hartuko da haren gastuak edo kostua bere gain hartzen dituen. Iruñeko Udalaren aurrean argi eta garbi

egiaztatzen ez bada obren jabea obra horretako eraikinaren jabea ez den beste pertsona bat edo entitate bat dela, eraikinaren jabea bera hartuko da obren jabetzat.

5. artikulua.- 1) Zergadunen ordezeko subjektu pasiboak dira behar diren lizentziak eskatu, dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkeztu edo kasuan kasuko eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

2) Ordezkoak ordaindutako tributu-kuotaren zenbatekoa galdatzen ahalko dio zergadunari.

Zerga-oinarria

6. artikulua.- Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren egiazko eta benetako kostua da, eta halakotzat jotzen da, ondorio hauetarako, haren egikaritze materialaren kostua, dagozkion proiektuan jasota dauden osagai guztiak barne harturik, eta, betiere, osagai horiek ez badute berezitasunik edo berezko izaerarik lizentziaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren xede den eraikuntza, instalazio edo obrak bezainbatean. Honako hauek ez dira zerga-oinarrian sartzen: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta araubide bereziko gainerako antzeko zergak, eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten tasa, prezio publiko eta gainerako ondare-prestazio publikoak eta tokikoak, profesionalen zerbitzu-sariak, kontratisten enpresa-mozkinak eta betearazpen materialaren kostuan hertsiki sartzen ez den beste edozein kontzeptu.

Kuota

7. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari Ordenantza honen eranskinean jasotako karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da.

Hobariak

8. artikulua.- Hobaria energia berriztagarrien inguruko obretarako

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren kuotan % 95eko hobaria izanen dute autokontsumorako eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak txertatzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek.

Hobari hau energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak xede dituen exekuzio materialaren kostuari dagozkion parteari baino ez zaio aplikatuko, baldin eta haren instalazioa nahitaezkoa ez bada gaiari buruzko berariazko araudiarekin bat.

Hori dela medio, aurrekontuak bestelako obra batzuk hartzen baditu barne, xede espezifiko horri lotuta ez daudenak, behar bezala banakaturik aurkeztu beharko da obra bakoitzari dagozkion zenbatekoa.

Hobaria baliatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Beroa sortzeko instalazioek kolektoreak eduki behar dituzte, administrazio eskudunak behar bezala homologatuta.

b) Hobari-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa eskabide baten bidez aurkeztu behar dira, Udal Ogasunari zuzenduta, lizentzia noiz eskatu eta orduan, edo obraren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

Sortzapena

9. artikulua.- Zerga hau eraikuntza, instalazioa edo obra abiatzearekin batera sortzen da, nahiz eta hartarako lizentziarik eskuratu ez edo kasuan kasuko erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu gabe eduki.

Zergaren kudeaketa

Kudeaketa-arauak

10. artikulua.- 1) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, hasiera batez, autolikidazio-araubidepean galdatuko da, izapide laburreko araubidearen eta lizentzia jakinarazien araubide bereziaren menpeko lizentzien eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea beharrezkoa duten obren kasuan. Gainerako kasuetan, tributu-administrazioak dagozkien behin-behineko likidazioa egingen du. Obrak amaitutakoan, tributu-administrazioaren eskumena izanen da zergaren behin betiko likidazioa egitea, betiere Ordenantza honetan aurreikusitako kudeaketa-arauekin bat.

2) Autolikidazio-araubidea aplikagarria den kasuetan, subjektu pasiboek derrigorrezko izanen dute zergaren autolikidazioa Udal Administrazioak emanen dien inprimaketan egitea. Betebehar hori ez betetzea tributu-erloto arau-hauste zehagarria da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren IV. kapituluaren xedatutakoarekin bat.

Izapide laburreko araubidearen eta lizentzia jakinarazien araubide bereziaren menpeko lizentzien kasuan, eskatzaileak, lizentzia-eskabidearekin batera, autolikidazio-agiria –behar bezala beterik– eta ordainketaren egiaztatzea aurkeztuko ditu, edo, bestela, ordainketa-epaia luzatzeko eskabidea, behar bezala erregistraturik. Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin lizentzia ematea, eta ordaindu izanaren gaineko ziurtagiria erretiratu beharra dago, behin izapidetu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

Erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea beharrezkoa duten obren kasuan, autolikidazio-agiria –behar bezala beterik– eta ordainagiria aurkeztu beharko dira, aurretiazko komunikazioarekin edo erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, edo, bestela, ordainketa-epaia luzatzeko eskabidea, behar bezala erregistraturik.

3) Subjektu pasiboek aurkeztutako hasierako autolikidazioaren edo tributu-administrazioak onetsitako hasierako likidazioaren ordainketa behin-behinekoa izanen da, eta behin betiko ordaindu beharreko kopuruaren konturakoa.

11. artikulua.- 1) Behar den lizentzia eman edo kasuan kasuko erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean, hasierako likidazioaren edo autolikidazioaren zerga-oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zedarrirituko da, betiere aurrekontu horrek kasuan kasuko elkargo ofizialaren oniritzia badu, halakorik nahitaezko baldintza den kasuetan. Bestela, udal-teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsian oinarrituta.

2) Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko proiektua aldatzen bada, eta horren aurrekontuak gora egiten badu, behin Udal Administrazioak aldaketa onartu eta gero, autolikidazio osagarria onetsiko da, hasierako aurrekontuaren eta aldaketaren ondoriozkoaren artean dagoen aldearen gainean

12. artikulua.- 1) Behin eraikuntzak, instalazioak eta obrak amaitu eta benetan egin direnak ikusita, hiru hilabeteko gehieneko epean –haien amaiera edo behin-behineko onarpenetik aurrera–, tributu-betebeharpekoek deklarazio bat aurkeztuko dute inguruabar hori azalduz eta kasuan kasuko eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako eta egiazko kostua adieraziz, eta, harekin batera, obraren zuzendari fakultatiboak haren gainean emandako egiaztagiria –dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia– eta, halakorik behar izatera, aipatu kostua egiaztatze fakturak edo bestelako agiriak, zeinak 12.3. artikuluan aipatzen baitira. Jarduera bat abiarazteko edo eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeko izapideak egin behar diren kasuetan, agiri horiek lizentzia eskatzen denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean aurkezten ahalko dira.

2) Subjektu pasiboek bukatutako eraikuntzen, instalazioen edo obren benetako kostuaren gaineko aitortpena aurkezteko betebeharra dute, nahiz eta hasierako autolikidaziorik aurkeztu ez eta Administrazioak kontzeptu hori dela medio ordaintzeko aurrez ez errekeritu.

3) Behin benetako kostua ezagututa, eta Administrazioak egitekoa den egiaztapena eginik, tributu-administrazioak behin betiko likidazioa egingen du, kasuan kasuko subjektu pasiboak hasieran autolikidatutako kuotarekin dagoen diferentzia positibo edo negatiboaren gainean, halako eran non, behar izatera, subjektu pasiboari behar den kopurua galdatu edo itzuliko baitaia.

4) Eraikuntzen, instalazioen edo obren bukaerako datatzat joko da zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabilita xedatzen ahal dena, eta, partikularki, haiek zer xede edo erabileratarako aurreikusi eta gerora inongo jarduketara material egin gabe horiek betetzeko prestatutik dauden uneari dagokiona.

5) Baldin eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak gauzatu bitartean zergaren subjektu pasiboen aldaketa edo ordezkapena gertatzen bada, bukaerako likidazioa obrak noiz amaitu eta data horretan subjektu pasiboa denari egingen zaio.

13. artikulua.- 1) Udal Administrazioak egiaztatuko du autolikidazioak Ordenantza honetako arauak zuzen aplikaturik egin direla, eta, horrenbestez, lortutako oinarriak eta kuotak arau horiek aplikatuta lortuak direla. Xede hori hartuta, Udal Administrazioak kasu guztietan egiaztatuko du bat eta bera direla autolikidazioetan jarritako oinarria eta benetako kostua ziurtatzeko kasuan-kasuan aurkeztutako aurrekontu, faktura edo egiaztagirietan agertzen dena.

2) Baldin eta Udal Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak egingen ditu gaizki aplikatutako kontzeptuak edo datuak eta errakuntza aritmetikoak zuzenduta, berandutze-interesak kalkulatuak ditu eta, behar izatera, behar diren zehapenak ezarriko. Halaber, likidazioa ere egingen du, subjektu pasiboak deklaratu gabe utzitako zerga-egitateen gainean.

3) Udal Administrazioak eraikuntzen, instalazioen edo obren benetako eta egiazko kostua egiaztatze agiriak eskatzen ahalko dizkie subjektu pasiboari, hala nola behin betiko aurrekontua, obra-ziurtagiriak, obrak gauzatzeko kontratuak, proiektuari dagokion kontabilitatea, obra berriaren deklarazio-agiria edo beste edozein agiri, kostua zehazteko egokitzat jotzen bada. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, edo osatu gabe aurkezten badira, edo haietatik ezin bada atera benetako eta egiazko kostua, Udal Administrazioak zerga-oinarria zedarrirituko du, Tributu-eraburuzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean ezarritako prozedurarekin bat.

4) Udaleko Zerbitzu Orokoretako (Ogasuna) eta Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuneko alorrek elkarri jakinaraziko diote jarduketak, halakoetatik ondorioztatzen bada eraikuntza, instalazio edo obrak egin direla lizentziarik gabe edo erantzukizunpeko adierazpen edo aurretiazko komunikaziorik aurkeztu gabe.

14. artikulua.- Lizentziaren titularrek edo deklaratuzaileek uko egiten badiote eraikuntza, instalazio edo obrak egiteari, espresuki eta idatziz egin ere, Udal Administrazioak zerga honen kontura ordaindu dituzten kopuruak itzuliko dizkie.

Orobat, behin lizentzia bat iraungita, Udal Administrazioak kopuru horiek itzuliko ditu, salbu lizentziaren titularrak hori berritzeko eskatu eta Udalak baimentzen badu.

Arau-haustek eta zehapenak

15. artikulua.- Tributuen esparruko arau-hausteen kalifikazioari zein kasuan-kasuan horiek direla medio ezartzeko diren zehapenen xedapenari dagokien orotan, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskalean xedatutakoari eginen zaio men.

TARIFA-ERANSKINA

Karga-tasa	
Hona ezartzen den tasa:	% 5,00